

Otxandio-n, 1983.eko Abenduaren 14an

Barandiaran jaunari
ATAUNera.

Agur t'erdi D. Joxemieli

Aspaldi luzean idatzi behar nizulako
ustean ibili naiz eta gaur arte luzatu zait.

Beinola esan nizun basalizar kontuari buruz
zerbait argiago eta zehatzago bidali nahi nizun, bai-
na Orozko ingurua arakatu izan dudan arren, ez dut
aurkitu basalizarraren fruituaz edaria egiten zute-
nen arraztorik. Agian ez dute nahi inori erakusterik
beren isilekoa. Badakizu, horren berri eman zidana
istripu batetan hil zen, eta baserri horietan bera
"etxeko" samarra zela uste dut, baina nik ez dut eze-
lako asmabiderik eta ezin dut aurkitu behar nuena.

Dena dela, Zer diozu zuk nire zalantzari bu-
ruz, lizarraren ordeztu basalizarra izan daitekela gu-
re lurretako zuhaitz sakratua pentsatzen dudanari
buruz ?

"Aran" izenari buruz, benetan harrigarria
da horren inguru dauden lekuko kopurua zenbaterai-
nokoa jakitea. "Aran", "Arane", "Araneko" etb., alde
guztietan ageri zaigu; egoaldeko eta iparraldeko ba-
selizarik famatuena euren erroetan izen horixe dute-
la dirudi. Beraz, honetan zerbait garrantzitsu badu-
gula iruditzen zait; generak euskerak bere barruan
gordetzen dituen zenbait hitzen zerrenda egiten ari
naiz eta benetan harrigarria iruditzen zait atera-
tzen ondorioa. Nire eritziz, guzti hau ezin da izan
euskeran berandu sartu izan den zerbait, atondura
osoa baitu egina gure hizkuntzaren barruan. Beraz,
eta beti nire eritziz, antxinatearen ikerketak egi-
teko baliabide ederra dugula uste dut hitz honen in-
guruko altxorra. Zer diozu zuk honetaz ?

Jakin nahi nuke nola zabiltezen astiz, osasunez
eta umorez, ikusaldi bat egitera joateko.

Honekin batera hartuko duzu, "Refranes y Sen-
tencias.." delakoari buruz egin nuen lantxoaren ale
bat. Norbait ez dator bat nirekin uste horretaz, bai-
na gehienek baietza eman didate. Villasante jaunak
beretzat harrigarria dela esan du.

Eta zure berri jakiteko irrikaz, Eguberri onak
opa dizkizut, eta berdin Pilar-i eta etxeko besteek.
Goraintzi emaitzu neure partez.

Gaurkoz, bihotzez agur

